



EBAZPENA, 2025EKO UZTAILAREN 23KOA, INDUSTRIA SUSTATZEKO SAILBURUORDEARENA, ZEINAZ ELKARTEK PROGRAMAREN 2025EKO DEIALDIAREN ESPARRUAN AURKEZTUTAKO ESKAERAK EBAZTEN DIRA

RESOLUCION DE 23 DE JULIO DE 2025 DEL VICECONSEJERO DE PROMOCIÓN INDUSTRIAL, POR LA QUE SE RESUELVEN LAS SOLICITUDES PRESENTADAS EN EL MARCO DEL PROGRAMA ELKARTEK-CONVOCATORIA 2025

Eragile zientifiko-teknologikoek eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkeztu dituzte 2025eko ELKARTEK programaren deialdiari heltzeko. Horiek guztiak aztertu egin dira.

Vistas las solicitudes y demás documentación complementaria presentadas por los Agentes Científicos-Tecnológicos al objeto de acogerse a la Convocatoria del Programa ELKARTEK, ejercicio 2025.

AURREKARIAK

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren 2024ko abenduaren 17ko Aginduaren bidez, argitara eman zen arlo estrategikoetako lankidetzazko ikerketarako laguntza-programaren deialdia – ELKARTEK – 2025 Programa.

Laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako aurrekontu-sailetatik datoz.

Eragile zientifiko-teknologikoek eskaerak aurkeztu dituzte, eskatutako dokumentazio osagarriarekin batera, ELKARTEK programa arautzen duen Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren 2024ko abenduaren 17ko aginduan xedatutakoari jarraikiz.

ANTECEDENTES DE HECHO

La Orden de 17 de diciembre de 2024 del Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, hizo pública la convocatoria del programa de ayudas a la investigación colaborativa en áreas estratégicas – Programa ELKARTEK– 2025.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas proceden de las correspondientes partidas presupuestarias consignadas a tal efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los Agentes Científicos-Tecnológicos solicitantes han presentado sus solicitudes, junto con la documentación complementaria exigida, conforme a lo dispuesto en la Orden de 17 de diciembre de 2024 del Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad por la que se regula el Programa ELKARTEK.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

ELKARTEK programaren esparruan, diruz lagunduko dira elkarlaneko oinarritzko ikerketaren proiektuak, industria-ahalmen handia duten ikerketa-proiektuak eta interes berezikoak diren ekintza osagarriak, baldin eta 2024ko abenduaren 17ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta adierazitako esparruak sartzen badira.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

En el marco del programa ELKARTEK, se consideran subvencionables los proyectos de investigación fundamental colaborativa, los proyectos de Investigación con alto potencial industrial y las acciones complementarias de especial interés, siempre que cumplan los requisitos establecidos y se encuadren en las áreas señaladas en el artículo 4 de la Orden de 17 de diciembre de 2024.



Onartutako proiektuetarako dirulaguntzak aipatutako aginduaren 7. artikuluan zehaztutako zenbatekoen arabera esleituko dira.

Espedientea eta ebaluazio-organoak egindako txostena ikusita, Teknologia eta Berrikuntzako zuzendariak ebazpen-proposamen arrazoitua egin du, ELKARTEK programa arautzen duen araudiaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proposamen horretan, hautatu nahi diren proiektuen zerrenda jasotzen da, eta proiektu horietako bakoitzerako honako hauek zehazten dira: erakunde onuradunak, ebaluazioan lortutako puntuazioa, onartutako aurrekontua, proiektua egiteko aurreikusitako epeak eta proposatutako laguntzaren zenbateko osoa.

Proposamenak, halaber, deialdian ezarritako baldintzak ez betetzeagatik ezestea proposatzen diren eskabideen zerrenda, ezespen hori oinarritzen duten arrazoiak eta, hala badagokio, ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioa jasotzen ditu.

Kargu Publikodunen Jokabide-kodea eta haien Interes-Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuaren 2025eko maiatzaren 29ko Aginduaren bidez (2025eko ekainaren 10eko EHAA), Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordea Industria Sustatzeko sailburuordearekin ordezkatzeara erabaki da, ELKARTEK programaren 2025. deialdia ebazteko.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har eta bereziki aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, eta 2025eko maiatzaren 29ko Aginduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, Industria Sustatzeko sailburuordeak honako hau

La asignación de las subvenciones a los proyectos aprobados se realizará conforme a las cuantías que se determinan en el artículo 7 de la Orden.

A la vista del expediente y del informe emitido por el órgano de evaluación, el Director de Tecnología e Innovación ha formulado la correspondiente propuesta de resolución motivada, conforme a lo establecido en el artículo 13 de la normativa reguladora del programa ELKARTEK.

Dicha propuesta incluye la relación de los proyectos cuya selección se propone, detallando para cada uno de ellos las entidades beneficiarias, la puntuación obtenida en su evaluación, el presupuesto aceptado, los plazos previstos para su realización y la cuantía global de ayuda propuesta.

Asimismo, la propuesta incorpora la relación de las solicitudes cuya desestimación se propone, por no cumplir los requisitos establecidos en la convocatoria, junto con los motivos que fundamentan dicha desestimación, y, en su caso, la puntuación obtenida en el proceso de evaluación.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos, y mediante Orden de 29 de mayo de 2025 del Consejero del Departamento de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad publicado en el BOPV de 10 de junio de 2025, se acuerda la suplencia de la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital por el Viceconsejero de Promoción Industrial para la resolución de la convocatoria 2025 del programa ELKARTEK.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y especial aplicación, y en virtud de las facultades que le otorga la Orden de 29 de mayo de 2025, el Viceconsejero de Promoción Industrial



EBAZTEN DU

Lehena: 70 puntutan ezartzea ELKARTEK programaren 2025 deialdiaren esparruan laguntzak emateko behin betiko mozketaren nota. Deialdi honi esleitutako aurrekontu-kredituak kontuan hartuta, mozketaren nota horren puntuazio berdina edo handiagoa lortu duten proiektuek jasoko dute dirulaguntza.

Bigarrena: Erakunde eskatzaileei laguntzak ematea edo ukatzea, dagokionaren arabera, "Diruz lagundutako/ezetsitako proiektuen zerrenda" agirian zehazten den bezala. Zerrenda hori dagokion proiektuan lortzeko aukera egongo da <http://www.spri.eus/laguntzak/elkartek/> plataforma elektronikoaren bidez.

Hirugarrena: Eskatzaile bakoitzari bere proiektuaren ebaluazioaren emaitza jakinaraztea, ebazpen honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena: 2025. urterako eman den dirulaguntzaren % 50 aldez aurretik ordaintzeko agintzea.

Ebazpen hau jakinarazten denetik hamabost egun naturaleko epea igaro eta onuradunak ez duela esanbidez uko egin egiaztatu ondoren, dagokion dirulaguntza ordaintzeko izapideak hasiko dira.

Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako Bermeen eta Itzulketen Araubide Orokorren mende dago emandako dirulaguntza. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

Ondorioz, aurreratutako zenbatekoa 180.000,00 eurotik gorakoa bada, erakunde onuradunak finantza-erakunde baten ABALA edo Administrazioak nahikotzat jotzen duen

RESUELVE

Primero: Establecer en 70 puntos la Nota de Corte definitiva para la concesión de ayudas en el marco de la convocatoria 2025 del programa ELKARTEK. Considerando los créditos presupuestarios asignados a esta convocatoria, serán subvencionados aquellos proyectos que hayan obtenido una puntuación igual o superior a dicha nota de corte.

Segundo: Conceder o denegar, según proceda, las ayudas a las entidades solicitantes, conforme se detalla en el documento "*Relación de proyectos subvencionados/desestimados*", que estará disponible accediendo al proyecto correspondiente a través de la plataforma electrónica <http://www.spri.eus/es/ayudas/elkartek/>

Tercero: Comunicar a cada solicitante el resultado de la evaluación de su proyecto, según lo establecido en el Anexo I de esta resolución.

Cuarto: Ordenar el pago anticipado del 50% de la subvención concedida para la anualidad 2025.

Una vez constatado que, transcurrido el plazo de quince días naturales desde la notificación de esta resolución, no se ha recibido renuncia expresa por parte del beneficiario, se iniciarán los trámites oportunos para proceder al abono de la subvención correspondiente.

La subvención concedida se encuentra sometida al Régimen General de Garantías y Reintegros establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las entidades colaboradoras que participan en su gestión.

En consecuencia, siempre que la cantidad anticipada tenga un importe superior a 180.000,00 euros, la entidad beneficiaria deberá presentar un AVAL de una entidad



beste berme mota bat aurkeztu beharko du alde zuzeneko ordainketa jasotzekin.

Bosgarrena: Lehenengo urteari dagokion gainerako zenbatekoa eta hurrengo urterokoena ordaindu ahal izateko, ekitaldi bakoitzean diruz lagundutako jarduerak benetan egin direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu eta onartu beharko dira. Dokumentazio hori amaitutako urtearen hurrengo lehen lauhilekoan aurkeztu beharko da.

Seigarrena: Ebazpen honekin batera doaz urteko justifikazio-kontua aurkezteko argibideak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu daiteke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoaren arabera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1.b) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren iragarki-taula elektronikokoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) eta, banaka, erakunde interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio.

financiera u otro tipo de garantía que la Administración estime suficiente con carácter previo a la percepción del pago anticipado.

Quinto: El abono del importe restante correspondiente a la primera anualidad, así como el de las sucesivas anualidades, estará condicionada a la presentación y posterior aprobación de la documentación justificativa que acredite la realización efectiva de las actividades subvencionadas en cada ejercicio. Dicha documentación deberá presentarse durante el primer cuatrimestre siguiente al del año concluido.

Sexto: Adjuntar a la presente resolución las instrucciones para la presentación de la cuenta justificativa anual.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

De conformidad con lo previsto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la presente resolución se notificará mediante su publicación en el tablón electrónico de anuncios de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco (<https://www.euskadi.eus/tablon-electronico-anuncios/>) y, de manera individual, a cada entidad interesada.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 23an

Andoitz Korta Zearreta
INDUSTRIA SUSTATZEKO SAILBURUORDEA
VICECONSEJERO DE PROMOCIÓN INDUSTRIAL